



2022ZZZI0001 Esptea

2023 EKITALDIKO AURREKONTUAREN TXOSTEN EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Laura Busca Fernándezek, 32/2018 Errege Dekretuan (abenduarien 27koa, Tokiko Sektore Publikoko erakundeetan barruko kontrolaren erregimen **juridikoa arautzeari buruzkoan**) **xedatutakoan oinarrituta**, LEGEZKOTASUNARI BURUZKO FINANTZA KONTROLAREN TXOSTEN hau egiten du.

1. APLIKAGARRIA DEN LEGERIA

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koA, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- Tokiko Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bategina.
- 21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurraldeko Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki erakundeen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorrean finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa
- 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko erakundeetan barruko kontrolaren erregimen juridikoa arautzeari buruzkoa.
- 3/2022 Foru Dekretu Araua, azaroaren 8koa, Gipuzkoako toki erakundeek aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorrean 2023an aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoa.

2. OINARRI JURIDIKOAK

Lehena.- Txosten beharra

Kontuan izanda abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Entitateen Aurrekontuei buruzkoaren) 6.3.e) artikuluan ezarritakoa, “*Aurrekontu orokorrean aurreko 1. eta 2. Idatz zatietan aipatutako agiriak ez ezik jarraian doazen hauek ere egon behar dira: (...)e) Ekonomia-finantzazko txostena; bertan sarreraren eta aurreikusitako kreditu-eragiketen ebaluaziorako erabilitako oinarriak azaldu behar dira, eta eskatuko diren betebeharrei eta zerbitzuen funtzionamendu gastuei aurre egiteko kredituak aski direla frogatu behar da. Hau da, aurrekontua orekatuta dagoela. Txostenean, gainera, udalak konpromiso kredituak finantzatzeko nahikoa baliabide dituen ere aztertu behar da, eta aztertu ere aparteko atal batean*”.

Udal Aurrekontuko sarreraren eta gastuen egitura Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egitura arautzen duen araudira egokituta egongo da.

Bigarrena.- Aurrekontuaren Edukia

2023 ekitaldirako Hondarribiko Udalaren Aurrekontu Orokorra Aurrekontu hauek osatua egongo da:

Udalaren beraren Aurrekontua.
Hondarribia Lantzen SA sozietatearen Aurrekontua.
Arma Plaza Fundazioaren Aurrekontua.

Ondoren Hondarribiko Udalaren sarrerak eta gastuak aztertzen dira.

Hirugarrena. - Sarrerak

2021eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio txostenetik ateratako datuetan ikusten da Sarreren Egoerako 1., 2. eta 3. Kapituluetakako Aitortutako Eskubide Garbiak 10.522.449,38 eurokoak direla eta bilketa likidoa 9.585.030,59 eurokoa dela. Nire ardurapeko kontabilitatean dauden datuak kontsultatuta, ikusi da txosten hau egin den egunean, 2022 ekitaldiko sarreren exekuzio egoeran, 1., 2. eta 3. Kapituluetakako Aitortutako Eskubide Garbien zenbatekoan 9.408.400,12 eurokoa dela. Horrekin guztiarekin, 2023ko ekitaldirako 10.405.558,00 euroko sarrerak daude aurreikusita 1. Kapitulutik 3.era.

4. Kapitulan aurreikusitako transferentzia arrunten ondoriozko sarrerei dagokienez, handitu egiten dira % 7,10 aurreko ekitaldian aurreikusitakoen aldean. Kapitulu honetan 13.824.108,00 euro sartzen dira Udal Finantzazio Foru Funtzaren transferentzia kontzeptupean.

Inbertsio errealen besterentzearen ondoriozko sarrerei dagokienez, guztira jaitsi egin dira, eta ondorioz ez da kontzeptu horrengatik sarrerarik aurreikusten 2023ko ekitaldirako aurrekontuan. Hori Hondarribiko udalerriko HAPOren baliogabetze judizialaren ondorioa da.

7. Kapitulan, Kapitalaren Transferentzien ondoriozko sarrerei buruzkoan, 7.000 euroko diru-sarrera aurreikusten da liburutegirako dirulaguntza kontzeptuan.

Dirusarreraren 8. Kapitulan 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren zenbateko berbera mantendu da

Diru-sarreraren 9. Kapitulan epe luzerako mailegu bat hitzartzea aurreikusten da, 249.404,00 eurokoa. Esan behar da zenbateko hori 2023ko ekitaldirako aurrekontuan aurreikusitako baliabide arrunten 1,00 % dela, eta ez dela aurreikusitako baliabide arrunten % 75 gainditzen. 2023ko ekitaldirako zorpetze kontzeptuan aurreikusitako zenbatekoak, defizita sortzen du Hondarribiko Udalaren hasierako aurrekontuan. Esan behar da aurrekontuaren hasierako aurreikuspenetan epe luzerako mailegu horrek sortutako defizita, 2023ko ekitaldirako Gipuzkoako Foru Aldundiak Hondarribiko Udalari esleitutako defizitaren banakako mugaren barruan dagoela (3/2022 Foru-Dekretu Araua, azaroaren 8koa,

Gipuzkoako toki entitateek aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorrean aplikatzekoak dituzten arau fiskalak eteteari buruzkoa).

Laugarrena.- Gastuak

I. Langile-gastuak

Lehenengo kapitulua 8.203.726,58 eurokoa da. Zenbateko horretan sartuta dago 2022ko ekitaldirako onartutako ordainsarien gehikuntza, bat etorriz Estatuko Aurrekontu Orokorren 2022 Legearekin eta 18/2022 Errege Dekretu Legearekin. Esan behar da 2023ko ekitaldirako uda langileriaren ordainsariak Estatuko Aurrekontu Orokorren 2023 Legeak ezartzen duenera egokitu beharko dutela, hala badagokio. Aurrekontuarekin batera langileriaren Eranskina joan behar da.

II. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak

Bigarren kapitulua 10.264.024,39 eurokoa da, eta % 8,66 handitzen da 2022ko ekitaldiko hasierako kredituekiko. Horri dagokionez, esan behar da aurrekontuan 2022 ekitaldian konprometituta dauden gastu guztiak sartu direla (kontratu esleituak).

III. Finantza-gastuak eta maileguen amortizazioak

Hondarribiko Udalak diru-sarreraren hasierako aurrekontuan epe luzerako mailegu bat hitzartzea aurreikusten du, 249.404,00 eurokoa. Ez da 2022 ekitaldiko gastuen aurreikuspenean printzipalaren amortizazio eta interesen ordainketa kontzeptupean zenbatekorik aurreikusten.

Bestalde, gastuen 3. Kapitulan sartuta dago 10.500,00 euroko zenbatekoa, banku-komisionen gastuei buruzkoa. Horri dagokionez ikus daiteke % 92,53 murriztu direla 2022ko ekitaldiarekiko, gaur egun ez delako aurreikusten udal banketxe kontuetan eskudirua mantentzeagatik finantza erakundeek banketxe komisioak kobratuko dituztenik.

IV. Transferentzia arruntak

Laugarren kapitulan 4.494.998,03 euroko zenbatekoa jaso da eta % 12,22ko gehikuntza dakar 2020ko ekitaldian aurrekontuan aurreikusitakoaren aldean.

4. Kapitulan azaltzen den zenbatekoa Dirulaguntzen Eranskinean sartu beharko da, azalduz aurrekontu aplikazioak, zenbatekoak, eta hala badagokio erakunde onuradunak. Gogorarazten da dirulaguntzen alorrean agiritasun, gardentasun, berdintasun, objetibotasun eta bazterkeria ezaren printzipioek arautzen dutela. Dirulaguntzak emateko prozedurari dagokionez, arau orokorra, DLOean ezarritakoaren arabera, norgehiagoko lehia izango da, eta salbuespena zuzenean ematea edo dirulaguntza izenduna ematea izango da.

V. Kreditu Orokorra

Kreditu Orokorrerako 154.267,00 euro ematen dira. Bosgarren kapituluan jasotzen da ekitaldian zehar izan daitezkeen hautazkoak ez diren eta hasieran onartutako aurrekontuan aurreikusita ez dauden beharrak artatzeko zuzkidura.

VI. Inbertsioak

Seigarren kapituluko zenbatekoa 2.002.051,00 eurokoa da, beraz % 24,02 murrizten da 2022ko ekitaldiko hasierako kredituetan aurreikusitakoaren aldean. Zenbateko horretan formalizatuta dauden urte anitzeko kontratuei buruzko zenbatekoak sartzen dira. Beste alde batetik, esan behar da 6. Kapitulan aurreikusitako gastua Inbertsioen Eranskinean sartu behar dela, eta hori egin beharreko inbertsioak banakatuko direla.

VII. Kapital transferentziak

Zazpigarren kapituluan 10.600 euroko zenbatekoa jaso da, eta bertan jasota dago ADEBISAren aldeko kapital transferentzia gisa 10.600 euro.

VIII. Finantza-aktiboen aldakuntza

Zortzigarren Kapitulan, langileei aurrerakin itzulgarriak emateko kredituak adieraziko dira, eta kasu honetan 20.0000 euroko zenbatekoa jaso da.

Bosgarrena.- Aurrekontu-oreka

Aurrekontu-oreka printzipioaren arabera, sarrerek arruntek (1-5 kap. = 24.883.763,00 €) nahikoak izan behar dute gastu arruntak (1-5 kap. = 23.127.516,00 €) finantzatzeko. Hondarribiko Udalaren hasierako aurrekontua orekatuta dago.

Seigarrena. - Izapidetzea

Aurrekontu Orokorrari hasierako onarpena eman ondoren, 15 egunez jendaurrean eduki beharko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarri ondoren. Epealdi horretan, interesdunek beren esku izango dute aurrekontua aztertzea eta Udalbatzari nahi duten erreklamazioa zuzentzea. Aurrekontua behin betiko onartutzat joko da aipatu epearen barruan erreklamaziorik egin ez bada; kontrako kasuan, Udalbatzak hilabete bateko epea izango du erreklamazioak ebazteko. Gogoratu, halaber, 21/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan xedatutakoekin bat etorritik, Udalbatzak Aurrekontu Orokorreari behin betiko onospena eman behar diola aurrekontua aplikatzeko den ekitaldiaren aurreko abenduaren 31 baino lehen.

ONDORIOA:

Hondarribiko Udaleko Aurrekontuak betetzen du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan eta 2022an



Hondarribiko
Udala

Gipuzkoako toki erakundeei aplikatzekoak diren arau fiskalak eteteari buruzko azaroaren 8ko 3/2022 Foru- Dekretu Arauan xedatutakoa.

Hondarribiko Udalaren Aurrekontuak 2023 ekitaldirako defizita du kontabilitate nazionalaren Europako Kontuen Sistemaren gain, -249.404,00 eurokoa. Hasierako defizita 2023ko ekitaldirako Gipuzkoako Foru Aldundiak Hondarribiko Udalari esleitutako defizitaren banakako mugaren barruan dago (3/2022 Foru-Dekretu Araua, azaroaren 8koa, 2023an Gipuzkoako toki entitateek aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorrean aplikatzekoak dituzten arau fiskalak eteteari buruzkoa).

Hori da gai honi dagokionez Kontu-hartzaitza honek jakinarazi behar duena, zuzenbidean oinarri hobea duen beste edozein irizpideren mende, eta betiere eskumena duen udal Organoaren esku uzten dena, interes publikorako egokientzat hartzen duena erabakiko baitu hark.

Elektronikoki sinatutako dokumentua